Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN SAILA

2164

948/2009 EBAZPENA, martxoaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, hutsik geratu diren destinoak txanda ireki bidez esleitzeko agindua ematen da fakultatibo mediko eta teknikarien lanbide-taldeko Odontologo kategorian. Aipatutako kategoriak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzuetako erakundeak ditu destino.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2006ko urriaren 24ko EHAAn argitaratu ziren, 203. zenbakian.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 19ko 1122/2006 Ebazpenaren bidez, fakultatibo mediko eta teknikarien lanbide-taldeko Odontologo kategorian pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko hautaketa proben oinarri espezifikoak onartu ziren. Aipatutako kategoriak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzuetako erakundeak ditu destino. Ebazpena 2006ko azaroaren 9ko EHAAn argitaratu zen, 214. zenbakian.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko urriaren 2ko 3175/2008 Ebazpenaren bidez, txanda irekiz esleitzen dira fakultatibo mediko eta teknikarien lanbide-taldeko Odontologo kategorian Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzuetako erakundeetan hutsik dauden destinoak. Ebazpena 2008ko urriaren 6ko EHAAn argitaratu zen, 190. zenbakian.

Aipatutako ebazpenean lanpostuaz jabetzeko ezarritako epea amaitu ostean, esleitu ez diren destinoak, esleitutako destinoetan jabetzerik izan ez dutenak, eta jabetzarik izanik ere titularra ez bada azaldu destinoan, betiere lortutako destinoa erreserbatzeko eskubiderik ez bada, oinarri orokorretako 10.9.6 oinarrian aurreikusitakoaren arabera berriro esleituko dira.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 10.9.7 paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriaz, txanda bakoitzari dagozkion destinoak Osaki-

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2164

RESOLUCIÓN 948/2009, de 10 de marzo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la adjudicación de los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de Odontólogo del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante la Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante la Resolución 1122/2006, de 19 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Odontólogo del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud publicándose en el BOPV n.º 214, de 9 de noviembre de 2006.

Mediante la Resolución 3175/2008, de 2 de octubre, se procedió a la adjudicación de los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de Odontólogo del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en los BOPV n.º 190, de 6 de octubre de 2008.

Finalizado el plazo de toma de posesión establecido en las resoluciones anteriores, los destinos que no han sido adjudicados, los destinos adjudicados que no hayan sido objeto de toma de posesión y los que hayan sido objeto de toma de posesión, en los que no se ha producido la incorporación efectiva del titular, siempre que no den derecho a reserva del destino obtenido, serán nuevamente adjudicados según lo previsto en la base 10.9.6 de las bases generales.

Conforme a lo previsto en el apartado 10.9.7 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, los destinos correspondientes a cada turno serán adjudicados

detzako zuzendari nagusiaren ebazpenez esleituko dira, eta ebazpen hori EHAAn argitaratuko da.

Adierazitako guztiagatik, eta langileei buruz indarrean den legeriak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Fakultatibo mediko eta teknikarien lanbide-taldeko Odontologo kategorian Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzuetako erakundeetan hutsik dauden destinoak txanda irekitik betetzeko esleipena egitea, ebazpen honekin batera doan eranskinean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoko lanpostuaz jabetzeko; esleipen-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da epe hori.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza zentralean, izangaiak aldez aurretik zita eskatuta, eta esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ekitaldi horretan:

– NANaren fotokopia konpultsatua edo pasaportearena edo gidatzeko baimenarena edo Europako Batasuneko beste estatu kide batzuen edo Europako Espazio Ekonomiko beste estatu batzuen agiri baliokidearena. Halaber, Europako Batasunaren Itunaren, Espainiak sinaturik dituen beste hitzarmen batzuen edo beste legeren baten indarrez langileei libreki joan-etorriak egiteko eskubidea aitortzen zaien beste estatu batzuen agiri baliokideen fotokopia konpultsatua ere onartuko da; eta kasua bada, 6.2.a) oinarriko 3. paragrafoan aipatutako dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

– Kolegiatua izateari buruzko ziurtagiria, baldin eta deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen bada.

– Zinpeko aitorpena edo hitzematea, honako hau jakinarazteko: ez direla diziplina-espediente baten bidez inongo administrazio publikotako zerbitzutik bereizi eta ez daudela zeregin publikoetan jarduteko gaitasungabetuta.

– Azterketa medikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Prebentzio-zerbitzuak emandakoa, destinoko lanpostua behar bezala betetzeko gaikuntza psikofisikoa dutela egiaztatzeko.

Esleipendunek, ezarri zaien epean, eskatutako agiriak aurkezten ez badituzte edo, agiriak aztertuta, 6.2 oinarri-arauan eskatutako betekizunen bat bete gabe dutela ikusten bada, ez dute estatutupeko langile gisa esleitu zaien lanpostuaz jabetzerik izango, eta baliorik gabe geratuko dira ordura arteko jarduketak; horrez gain, erantzukizuna ere eskatu ahal izango zaie hasierako eskaera faltsutzeagatik.

mediante Resolución de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, la cual será publicada en el BOPV.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO:

Primero.– Adjudicar los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de Odontólogo del Grupo Profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, mediante anexo que se acompaña a la presente Resolución.

Segundo.– Los adjudicatarios dispondrán para la toma de posesión del destino correspondiente del plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la Resolución de adjudicación en el BOPV.

La toma de posesión deberá efectuarse en la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con domicilio en la Sede Central del mismo, previa petición de cita por parte del aspirante, debiendo aportar en el acto la siguiente documentación:

– Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir o documento equivalente para los nacionales de otros estados miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo o de los estados a los que, en virtud del Tratado de la Unión Europea, de otros tratados ratificados por España o de norma legal, les sea aplicable la libre circulación de trabajadores así como, en su caso, fotocopia compulsada de la documentación a que se hace referencia en la base 6.2.a) párrafo 3.

– Certificado de Colegiación, cuando se requiera en las bases específicas de la convocatoria.

– Declaración jurada o promesa de no haber sido separado del servicio de ninguna Administración Pública, mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

– Reconocimiento médico que acredite la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, emitido por el Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Quienes, dentro del plazo fijado, no comparecieran provistos de la documentación mencionada o, del examen de la misma, se dedujera que carecen de alguno de los requisitos señalados en la base 6.2, no podrán tomar posesión del destino como personal estatutario que se les hubiere adjudicado y quedarán anuladas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieren incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, lanpostuaz jabetzen direnak egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, osasun-zerbitzuen barruan esleitu zaien erakundean.

Hirugarrena.– Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 14. paragrafoan agindutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 10a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

Del mismo modo, se apercibe a los interesados que la no comparecencia a la toma de posesión, dentro del plazo o, en su caso, de su prórroga, significará la pérdida de los derechos derivados de la resolución de las pruebas selectivas.

Aquellos aspirantes que, con arreglo a lo anteriormente expuesto, efectúen la toma de posesión habrán de incorporarse a la organización de servicios sanitarios que proceda al día siguiente al de la cumplimentación de la correspondiente diligencia.

Tercero.– Al amparo de lo establecido en el apartado 14 de de las bases generales que rigen el proceso selectivo, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 2009.

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

ERANSKINA/*ANEXO*

KATEGORIA: FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA

CATEGORÍA: FAC. TÉCNICO ODONTÓLOGO

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA

PUESTO FUNCIONAL: FAC. TÉCNICO ODONTÓLOGO

TXANDA IREKIA - DESTINOEN ESLEIPENA

ADJUDICACIÓN DE DESTINOS - TURNO LIBRE

Nan *Dni*	Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	Zerbitzuetako erakundea *Organización de servicios*	Destinoa *Destino*	He *Pl*	Derrig. data *Fecha precep.*
72496170	Arocena Ferro, Julen	Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea *Comarca Gipuzkoa - Este*	Gip. Eki. Esk.–Zarautz (OZ) *C. Gip. Este-Zarautz (CS)*	2	2008-06-01 *01-06-2008*
30693518	Madariaga de la Fuente, Itziar	Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea *Comarca Gipuzkoa - Oeste*	Gip. Mend. Esk.–Beasain (Anb.) *C. Gip. Oeste- Beasain (Amb.)*	2	2005-06-01 *01-06-2005*
72442658	Escribano Landa, Irati	Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea *Comarca Gipuzkoa - Este*	Gip. Eki. Esk.–Errenteria Iztieta (OZ) *C. Gip. Este- Renteria Iztieta (CS)*	2	2008-06-01 *01-06-2008*